GR®T 13
Belaguako aterpea - L'Abérouateko aterpea

DATU TEKNIKOAK

- Aurreikusitako denbora: **7 h 51 min**
- Metatutako desnibel positiboa: **1160 m**
- Metatutako desnibel negatiboa: **1142 m**
- Guztira egindako distantzia: **19,1 km**

MIDE

4 3 2 4

SEINALEAK

BIDEAREN JARRAIPENA

NORABIDE ALDAKETA

OKERREKO NORABIDEA

Mugaz bi aldetako GR®T 13 bideak, Nafarroako GR® 12 eta Frantziako GR® 10a lotzea ahalbidetzen du, Belaguako aterpetik Frantziako L'Aberouateko aterperaino Insole lepotik igarota (2049 m), bi estatuen arteko muga naturala alegia. GR® 10ean egonda, ibilbidea luzatu daiteke Leskun herriraino.

Belaguako aterpetik bidea hegoaldera doa Añiberkandian barna, tartetxo batean GR® 12arekin bat eginez eta Larrako natura erreserbako paisaia karstiko ederra zeharkatuz. Insole edo Anaie lepotik bideak azkar egiten du behera Billare eta Auñamendi tontorren artetik Sanchésera heldu arte, GR® 10arekiko loturatik gertu.

Insole lepotik GR®T 13ko bide-adar bat hegoaldera doa, Aragoiko Linza aterpearekin lotuz, baita GR® 11rekin ere Nafarren Mendateaaren altueran. Belaguako aterpetik ere Linzara heltzeko aukera dago, Larrerian GR® 12a hartuta GR®T 13rekin bat egiten duen tarte batetik. Bideak marka zuri eta gorriak ditu, GR bide guztiek bezala.

KONTUZ! 2019ko udazkenean Frantziako tartea oraindik seinaleztatu gabe dago.

IBILTARIENTZAKO GOMENDIOAK

GOGOAN IZAN

- **Ibiltari bakoitza da bere segurtasunaren arduradun.**
- **Zuhur jokatu.**
- **Ez utzi zaborrik mendian.**
- **Itxi langak igaro ondoren.**
- **Txakurrak lotuta eraman ganadua dagoen eremuetan.**

IBILBIDEKO OHARTARAZPENAK

- Baliteke neguan bidea elurrarekin estalita egotea, arriskutsua da garai horretan ibilbidea burutzea.
- Eremu honetan ohikoa da laino itxia eta ekaitza izatea. Beharrezkoa da urte osoan jantzi egokiak eta beroak eramatea, baitaGPSa ere.
- Goi mendiko ibilbidea da, luzera eta desnibel handikoa. Arreta handiz jokatu ibilbide osoan.

SOSLAI TOPOGRAFIKOA

GR©T 13 Belaguako aterpea - L'Abérouateko aterpea



ERRONKARIBARKO BATZORDE NAGUSIA
JUNTA GENERAL DEL VALLE DE RONCAL

Interreg POCTEFA

Este proyecto está cofinanciado por el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)